

**Ramon Etxezarreta**

♦ PSE-EEKO KIDEA

Berriak oposizioan

JAVIER MAROTOREN kontra-koa, xenofobiaren kontrakoa izan dela sinesten duenak eraman dezala bere bizkar konbikzio hori. Ez zait gustatu zenbaiten ase ezin politikoa, ezta ohi jendearen –jende arruntaren– portaera ere. Izan denak, nola ahaztu gabe, denarekiko begirunezko distantzia zuhurra gorde behar luke, eta kritika politikoa beste estilo batekin egin. Ahaide politiko eta odoleko gehiegi ikusi dut altxorra banatzeko orduan: *Gasteiz, ¡para que gastéis!* Balitz xenofobiagatik! Merke dago PPren aurrean aurrerakoi irudikatzea, zail, aldiz, xenofobiaren kontrako praktikak irentsi, onartu eta errotzen bultzatzea.

Lehen indarrari gobernatzen uztea beste bat da. Duela ez asko arte bekatu larria zen, sakrilegioa, hari, abertzalea bazen behintzat, aurrea hartzea. Oraingoan libre ez ezik derrigorrezko ere bazirudien politikoki zuzena izatekotan. Hala gertatu da Nafarroetan. Inoiz ez dut aintzakotzat hartu lehenengoari gobernatzen uztea, gehiengoarena baita, beti, zilegitasuna eta gehiengoek gutxienez bi gauza izaten dituzte berekin, elkarriketa eta akordioa.

Kontua ordea, akordio horien nolakotasunean datza. Ez dakit zer kohesio eta akordio kalitate izango dituzten estu eta justu osatu diren horiek. Zenbat eta talde politiko gehiago koalizioetan orduan eta hauskorrago izaten dira gobernuak. Ikuskizun, denbora izango da lekuko.

Bien bitartean, ea parada profitatzen den bi komunitate

politiko administratiboen arteko harremana normaltzeko eta, bide batez, normaltzeak berak zer esan nahi duen erabakitzeko.

Gobernu formula berriak baino oposizio berriak dira nobedade deigarri. Gogor joan dira herritarrak Bilduren gobernu esperientzia ukatu eta uxatzera. Xehetasun ñimiñoak dira, baina Zerain eta Igeldo datozkit gogora.

“Gasteiz, ¡para que gastéis!”. Balitz xenofobiagatik! Merke dago PPren aurrean aurrerakoi irudikatzea, zail, aldiz, xenofobiaren kontrako praktikak irentsi, onartu eta errotzen bultzatzea

Gipuzkoako herritarren partaidetzarako zuzendariak (Arantza Ruiz de Larrinagak) marka ontzen eta hausten zaila jarri du alkatea –bere burua, alegia– izendatzerakoan, Gipuzkoako abstentziorik handiena lortu du, probintziako herri guztietakoa ia bikoiztuz. Igeldon berriz, galdeketa famatu haren –Donostiako udalaren jarrera neutral lotsagarri haren– kontrarioek botoak bikoiztu egin dituzte.

Edozein izango dela ere herritarren partaidetza oposizioan, ez da oraingoan biolentzia protagonista izango, ez kide ere. Hori bai izango dela egiteko eta parte hartzeko modu berria. ■

BERTSO BERRIAK



ANBOTO

Xabier Amuriza

♦

Perikoren arrazoiak

Doinua: Aita izena.

Neska bat haurtxo batekin dator etxegabeen samina ostatatzen du elizan eta goietan a zer muzina!
“Ama Birjina balitz –darantzu– zein litzateke ezina?”
“Gainera birao!” –sutzen zaizkio eta Perikoren zina:
“Ez da, ba, joango zeren gaur hemen haxe da Ama Birjina”.

“Ezin dugula esan al dute? Ba, egin dezagun proba!”.
Zapalkuntzari jarkitzea zen haren sostengu baikorra. Berdinentzat hain samurra eta goikoentzat hain gogorra haren *ars vitae* teorikoa laburtu ahal balitz, horra:
“Egin sinesten duzuna eta betor nahi duen zigorra”.

Hizkeran gatzat gesalak aina arrazoietan eztena konsekuentzia berriz, galtzeko ezer ez daukan batena. Lema bat zuen: “lehenik egin eta gero azalpena”. Zeren “hutsaren gainean zer da esplikatu behar dena?”. Periko berdin hirutasun bat: sena, bihotza, kementa. ■